



## Irakasleak mintzo

# Errepikatu nahi ez duen hori

## Zutabe

**Egoera** Bigarren urratseko talde batean ikasturtea hamalau ikaslerekin hasi bazen ere, bi baja eta talde-aldaketa bat zela medio, hamaikak bakarrik amaitu zuten ikastaroa. Horietatik kurtsoaren ebaluazio-frogara hamar aurkeztu ziren, honako emaitzak lortuz: seik dena gainditu, batek "hizkuntz formak" atala suspenditu eta hiruk dena gaizki egin zuten. Ikastaroan eginikoa eta frogak erakutsitakoa aztertu ondoren, seik gainditu zuten urratsa, batek "hizkuntz formak" atala suspenditu, eta beste laurak ikastaroa errepikatu beharrean geratu ziren. Urratsa errepikatzeke moduan zeudenetariko batek utzi egin zuen, eta beste hiruei bigarren urratseko 001 edota 002 taldeetara pasatzeko aukera eman zitzaien. Horietako bik proposamena ontzat eman zuten, erreleboan lan egiten zutenez ondo baitzetorkien. Hirugarrenak, aldiz, klasean piper ugari egiten zuten horietakoa, ez zuen onartu, hirugarren urratsean ahaleginduko zela adieraziz.

– Nola ulertu azken ikasle honen jarrera? Zein dira, zure ustez, jokabide horren arrazoiak?

– Zer egingo zenuke zeuk ikasle horrekin? Eta zergatik?

Patxi Iturregi  
Escondrillas  
(Laudioko Udal  
Euskaltegia)

Ikasle honek ez du ebaluazioaren ondorio administratiborik onartzen, ikasguaren antolamendua oztopatuz. Zergatik jokabide hori? Arrazoiak asko izan daitezke; aipa ditzagun garrantzitsuenak.

- Informaziorik eza.* Ukatu egiten dio ebaluaketari ikas/irakasprozesuan duen balioa. Ez daki argi bere egoera zein den. Ez du aurriztuen taldearen martxarako galgarri izan daitekeenik.
- Norberaren porrota ez onartzea.* Fenomeno hau, gehienbat, goi-mailako ikasketak eginak dituztenen artean gertatzen da.

- c. *Laster utzi behar duen taldearekiko lotura berezia*: lagunak, ikaskideen arteko giro atsegina, gustoko irakaslea...
- d. *Ezezagunaren aurreko beldurra*: ordutegi ezberdina, beste talde batera egokitu beharra, irakasle-aldaketa...

Horrelakoetan lehendabiziko urratsa informazio eskaintzea da. Euskararen ikasprozesua azaldu beharko zaio, ebaluazioaren azken helburua zein den (erabakiak nola hartu diren), aurrerantzean zer egin behar duen arrakastatsua izateko... Azalpen guzti hauek emateko oso egokia izan liteke arduradun didaktikoaren laguntza.

### *Gasteizko IKAKo Didaktika Taldea*

Deskribatzen den egoerari lotuz, bigarren urratsa gainditu ez eta hirugarrenean ahaleginduko dela dioen ikasle honen moduko jarrerak, zoritxarrez, behin baino gehiagotan gertatzen dira ikastaroaren akaberan. Gisa honetako jokaera hertsiki baten zioz hausnarketatxo bat egitean, eta kasuak desberdinak izanagatik, gure ustez, honako hauek lirateke nagusiki portaera horren eragile.

Aalde batetik, ikasle horrek bere klaseko ikaskideak ezagutu eta ikasturtean zehar beraiekin lortutako konfidantza-mailak babes handia ematen dio. Ikastalde berri batean sartu beharrak, ordea, ikaskide izan dituenak utzi eta ezagutzen duen giro horretatik banantzea dakartza ondorioz, eta hori ikasleak ezin onar dezake erraz, hurrengo urratsean ahaleginduko dela adieraziz.

Bestalde, taldekideen gehiengoarekin alderatuz, eskatzen zen gutxienezko maila gainditu ez duen bakarretako bat izateak atzean geratu izanaren sentsazioa sortzen dio askori, porrotaren sentsazioa, alegia. Azken buruan, gaur egungo gizartean dagoen elkarren arteko lehia horretan onena izateak berebiziko garrantzia du asko eta askorentzat. Dena den, onena izatea edozeinen eskumenean ez baldin badago ere, gehiengoak duen maila beretsua lortzea da askoren xedea; eta hau lortu ezean, batzuek porrot egindakotzat hartzen dute euren burua.

Gizarteko errealitate horren islada euskararen ikaskuntzaren alorrera eramanda, hainbatetan hizkuntzaz jabetzeko orduan nork bere ikasprozesua izan behar duela ez da onartzen; eta, ondorioz, gehiengoak erdietsi duen mailara heldu ez izana porrota kontsideratzen du ikasle askok. Gauzak horrela, urratseko edukiak eta hizkuntzaren jabetza egokiaren ordeiz, nola edo hala mailaz pasatzea bihurtzen da helburu eta motibazio bakarra askoren burutan.

Hain zuzen ere, egoeran aurkezten zaigun ikasle horri gagozkiolarik, ziuraski, jakin badaki argi asko bigarren urratseko helburuak ez dituela behar lez lortu, baina, hala ere, hirugarrenean saiatu nahiago du, bigarrenean “errepitidore” izan baino.

Auzi honen aurrean argudio argi eta zehatzez mintzatuko gintzaizkioke ikasle horri. Lehenik eta behin, euskalduntze-prozesuan urratsak ondo burutzeak geroan duen berebiziko garrantzia azalduko genioke. Orobat,

hain zuzen ere bere kasuari lotuz, bigarren urratseko eduki orokorrak finkatzeke eduki eta mailaz pasatzea mesederako baino bere kalterako izango litzatekeela ikustaraziko genioke, eta horrek daukan arazoari konponbidea eskaini beharrean, berori areagotuko lukeela.

*Lorendiñe Usarralde  
(Lasarte-Oriako Udal  
Euskaltegia)*

Lehenik aipatu nahi nukeena zera da: ikasle honek euskararekiko daukan motibazio-falta izugarria dela. Ez du hizkuntza hobeto integratzeko edo eta jendearekin eguneroko bizitzan normal komunikatzeko ikasi nahi. Bere interesak, nere ustez behintzat, aproba bat gainditzea besterik ez da. Aproba hau azterketa bat izan daiteke; bai eskolakoa edo lanpostu batetakoa. Pertsonalki ere, agian senti dezake bere barruan halako frustrazio bat atzera egitean; hala ere, honek pentsatzeko eta erabaki sendo batetara iristeko bidea emango balio, gaitzerdi! Baina, nere ustez, zoritxar hau laster ahaztuko du eta bere jarrerari segiko du.

Nik ez nioke hirugarren urratsean hasten utziko. Bigarren urratsa errepikatu nahi ez badu, hor konpon! Berak izango du kalte.

Klasera egunero joatea guztiz beharrezko jotzen dut, eta, ikasle honen jarrera ezaguturik, bere asistentzia erdia izango litzateke; horri bigarren urratsean dituen hutsegiteak gainditu gabe dauzkala gehitzen badiogu, ez genuke ez bigarrena gaindituko eta ezta hirugarrena landuko ere. Hori dela eta, askoz okerragoa izango litzateke gero ikasle hori atzera botatzea. Eta, bere teoriari jarraituz, ez luke atzera joan nahiko; beraz, hobe lehenbailehen jarrera hori moztea.

*Jose Luis Martinez  
(Basauriko Udal  
Euskaltegia)*

1. Arrazoi ugari izan litzake ikasle horrek bere jarrera defendatzeko. Ezin da ahaztu ikasleentzat, oro har, trauma bat izaten dela errepikatu beharra eta gainera ikasprozesua al bait arinen amaitu nahi izaten dutela. Honela, urratsa gaindituta beren xedetik hurbilago daudela pentsatzen dute.

Kontutan hartu behar da, halaber, hainbat hilabetetan zehar talde-dinamika bat sortu dela eta beheko urratsetan, gainera, klaseak nahiko dinamikoak izaten direnez, giro polita sortzen dela taldeetan. Honela ikaslea, piper ugari egin arren, gustora sentitu da taldean, adiskideak egin ditu, irakaslea ere ezaguna du eta berarekin moldatu da. Bapatean, guzti hori utzita, bere talde-dinamika propioa duen talde arrotz batean sartu, jende berriarekin egon eta moldatu beharra gogor samarra izan daiteke hainbat ikaslerentzat. Gainera, talde horretara ez doa ikasle berri modura. Ikasle hori nolabait “markatuta” dago eta taldekide berriek ikasle torpe edo tontotzat hartuko dutela pentsatzen du.

Beste aldetik, eta egun euskaltegian ugariena den ikasle-tipoaren arabera, institutuko ikaslea, selektibitatean batz besteko emaitza igotzeko zein asignatura gainditzeko euskara ikasten hasi diren horietakoa izan daiteke. Edukien aldetik, ikasle hauek institutuan ikusitakoarekin alderatzen dituzte euskaltegiko edukiak eta, normalean institutuan askoz ere materia gehiago ikusi dutenez, han aurrerago dabilzala uste dute. Hori

horrela bada ere, hau da, edukien aldetik gehiago “ikusi” badute ere, ez dituzte menderatzen eta normalean hori trebetasunetan isladatzen da. Dena den, horrek azkarrustea sortzen die eta asko dakitela edota edukiak jadanik ikasiak dituztela pentsarazten die. Nola edo hala aurrera segitu nahi izaten dute, institutuan ikusten ari direna euskaltegian ere ikusi ahal izateko, eta irakaslea konbentzitzen saiatzen dira, hirugarrenera pasatu eta hirugarrena errepikatuko dutela, berriro ariketa berberak ez egi-tearren aurrera pasatuko direla eta abar esanez.

2. Ikasle hori urratsa errepikatzeko konbentzitu behar izaten dugu. Ikasle bati errepikatzeko esaten zaionean, gauzak nahiko argi egoten dira eta ezinbestekoa izaten du errepikatzea. Irakasleak taldea mantentzera jotzen du oro har, adibidean bezala taldea txikiegi ez geratzeko. Euskaltegiaren egiturak eta dinamikak askotan beheko taldeak handitzea ekartzen dute eta ez dira edonolako ikasleak izaten taldea handitzen dutenak, ikasle problematikoak baizik. Honela, ikasturtea aurrera joan ahala, behe-beheko taldeak lan egiteko handiegiak suertatzen dira, bertan baitaude ikasturte-hasierako ikasleak gehi arazorik daukatena.

Normalean irakasleak bere iritzia azaltzen dio ikasleari; eta bere iritzi “subjektibo” hori baieztatzeko, ebaluatzeko frogak eta egindako akatsak erakusten dizkio, datu objektibo horien bidez ikasleak egoera zein den hobeto uler dezan. Gainera, hasierako lau urratsetako edukiak oinarri-oinarritzkoak dira eta, oinarri hori sendoa ez bada, ikasprozesuan aurrera joan ahala, ikaslea galduago ibiliko da eta etsi egingo du azkenean. Errepikatuz gero, ordea, ikaslea lasaiago ibiliko da, asistentzian duen hutsune hori ez da hain garrantzitsua izango eta patxadaz eta oinarri sendoarekin segituko du aurrera. Dena den, gerta liteke, eta gertatu ere gertatzen da, ikasle hauek baja izatea.

*Rafa Ugalde eta  
Bego Begiristain  
(Amorebieta-  
-Etxanoko Udal  
Euskaltegia)*

Aurkeztu zaigun egoera irakurri ondoren, hona hemen gure iritziak. Lehenengo eta behin ikasle honen benetako interesa ez da euskara ikastea, bere helburu bakarra urratsak pasatzea da.


Interes-falta horrek ez dio errealitatea ikusten uzten eta ez da konturatzten urratsetan aurrera egiteak egoera konplikatu baino ez diola egingo, taldean berak baino maila altuagoa duten ikaskideekin topo egitean, frustrazioa etorriko baitzaio.

Bigarren galderari erantzunez, ez genioke aurrera jarraitzen utziko. Aukera bi edukiko lituzke: bata egoeran aipatutakoa, errepikatzea, alegia; edo Euskaltegia uztea.

Urratsez pasatzea ez litzateke logikoa izango, arestian aipatutakoagatik eta bere taldearen martxa egokirako oztopo izango litzatekeelako.

Bigarren aukera hau egiterakoan kontutan izan dugu ikaslea piper ugari egiten dituztenetakoa dela.

## *Kanpainak*



*Gure artean euskararen alde egindako kanpainak islatu nahi ditu ZUTA-BEk sail honetan, beraz erabilitako foileto, pegatina eta abarren erreproduzioak eskainiz. Aintzat hartzekoak baitira eremu horretan han-hemenka eginiko saiok. Hauxe besterik ez dugu behar: erreproduzitzeko materiala eta kanpainen inguruko xehetasun labur zenbait: erantzaileria, norentzakoak, zergatia, iraupena, zabalkundea eta baliabideak, besteak beste.*